



Euskararen Berreskurapena

HERRI-DINAMIKAN DAGO GAKOA

Paulo AGIRREBALTZATEGI

Euskararen berreskurapen nazionala, soziala, kulturala eta pertsonala: horra helburua. Elebitasunaren, normal-kuntzaren, modernotzearen eta estandarizazioaren helmuga euskararen berreskurapen osoa da Euskal Herrian.

Baina helburuak eta helmugak argitu ondoren, helbideak zehaztu behar dira. Ba dirudi, ordea, gehienok ados gaude-la, ezinezkoa izango dela euskara normalbidean aurrera eramatea eta horren berreskurapena lortzea, benetan horren aldeko herri-dinamika zabal eta finkoa eratzen ez baldin bada. Euskararen normalkuntzarako erakunde publikoen eta ofizialen sortzea eta indartzea, batetik, eta herri-dinamika, bestetik, ez daude elkarren aurka, hasieraz behintzat. Kaltegarria litzateke erabat, batak bestea ukatuz edo bata bestearen aurka sistematikoki hasiko balira.

Jakitekoa litzateke, bestalde, euskararen auzeko egoera larrian gertaturik, beren hizkuntzaren normalkuntzan eta

berreskurapenean arrakasta izan duten Herrietan (Finlandian, Txekoeslovakian, Israelen, Kanadan), nahiz porrot egin dutenetan (Irlandan, etab. etan) zein izan den hizkuntzaren aldeko herri-dinamikaren eginkizuna eta horren haremna bertako erakunde publiko ofizialekin.

Hori aztertzeko unea ez dugu oraingo hau. Baina bai nabarmendu behar dela, Euskal Herriak administrazio-erakunde ofizial guztiak arrotzak izan dituen garaietan, indar herritarrek eraman dutela beren eskuetan euskararen zuzia eta hori pizturik mantentzeko borroka. Ikastolak, Alfabetatze-euskalduntzeko erakundea eta gau-eskolak, Euskal kultur taldeak eta mintegiak, Euskaltzaindiak ukan duen herriaren aldetiko euskarria (Bai Euskarari!, etab.), «Korrika»k, «Kilometroak», «Oinez»-ak, «Araba euskaraz»-ak, «Ibilaldia», «Herri Urrats»ak, euskal prentsa eta komunikabideen aldeko mobilizazioak, jaialdiak eta manifestal-

diak, EHE, UEU, etab. etab. herri-dinamika horren adierazgarri besterik ez dira. Bere tradizioa du euskararen aldeko herri-dinamikak.

Herria da protagonista

Ez da, ordea, aski historia baten protagonista izana, herri-dinamika hori bera euskararen berreskurapenerako aurrerako plangintzaren eta programaren ardatz bihurtzen ez bada.

Garai batean erresistentziaren indarra adierazten zuten herri-mobilizazio haiek folklorismo bihurtzeko arriskua dute gaur, erakunde publiko eta ofizial guztiek benetan aintzakotzat hartuko duten mugimendu herritar iraunkor eta eratu baten barruan ez badoaz. Uste dudanez, euskararen normalbidean lantzen diren plan guztiek, programatzen diren lanbide denek eta egiten diren urrats orok herri-dinamika horixe eduki behar dute oinarritzat eta markotzat.

Areago, indar herritarrei protagonismoa emateak zera eskatzen die horiei: euskararen aldeko unean uneko edo noizbehinkako *egintzak* benetako konpromiso eta *ekintza* iraunkor bihurtzea.

Herri-indarren engaiamendu eta ekintza horiei, berriz, bideak ireki behar zaizkie alde guztietatik; ez itxi.

Euskararen *irakaskuntzan*, bereziki helduen euskalduntzean eta alfabetatzean, bi aldetatik agertu behar du herriaren protagonismoak: herri osoari eta herritar guztiei irekita egon behar du alfabetatze-euskalduntzeak, denei aukera eta ahalbideak emanez, eta inolako «elitismoan» erori gabe; bestalde euskal herritar guztiek —euskaraz ondo dakitenak nahiz eskasago dakitenak, bakoitza bere ahalbideen arabera— euskararen irakasle bihurtu behar dute gutxiago dakienaren edo batere ez dakienaren, baina ikasi nahian dabilenaren aurrean.

Euskaraz ikasten ari direnentzat, zerbait da ligan guztiok irakasle eta maisu bihurtzeak garrantzi ikaragarria duela uste dut. Iruditzen zaidanez, nolabaiteko eskuliburu bat edo beharko litzateke, euskaldun orori bere inguruan maisu eta irakasle izateko patzientzia eta metodoa erakutsi oinardiona. Herri-pedagogian oinarritu behar du Euskal Herriaren alfabetatzeak eta euskalduntzeak.

Administrazio publikoan eta zerbitzu sozial publiko nahiz pribatuetan, hiru aldetatik behintzat bultzatu behar da herriaren protagonismoa: bat, zerbitzu horietan norberak euskara erabiltzeko eta zerbitzua euskaraz hartzeko *eskubi-deari* buruz jaberazi jendea; bi, eskubide hori beterazteko errebindikazioa bultzatzeko mugimendua eta kanpainak eratu; hiru, eskubide horiek benetan obratzeko ahalegintzen eta borrokatzen direnek aurkituko dituzten eragozpen eta oztopo legal eta instituzionalak gainditzeko laguntza eta kontseilaritza juridikoa antolatu.

Komunikabide sozialei dagokienez, euskarazko prentsa, irrati eta telebistan herriaren partehartzeko bideak zabaldu behar direla uste dut; bestalde, horiek irakurtzeko, entzuteko edo ikusteko kanpainak antolatu eta zabaldu behar dira, bai eta horretarako laguntzak eta eragingarriak eskaini ere.

Baina herriaren euskararekiko engaiamendua horren erabileran mamitzen da bereziki; jakina da, erabileraren erabileraz bakarrik normalduko dela euskara eta hori berreskuratuko Euskal Herriak. Euskararen erabilera zabaltzeko, ordea, etengabeko kanpainak ezezik, oinarritzko laguntzak eskaini behar dira, funtsezko hiztegiak eta mintzatzeko bide errazak zabalduz. Era berean, euskaraz mintzat-

zeko eta praktikatzeko ahalbideak ireki behar zaizkie ikasten edo hobetzen ari direnei, euskal tokiak, biltokiak, jaialdiak, etab. eraikiz eta antolatuz.

Jarkierazko izpiritua eta bidea

Euskarak jasaten duen menperakuntzako egoera eta «bizi» duen gailorizko kinka honetan, horren aldeko herri-protagonismoak izen bat du: Bakezko herri-jarkiera! Borrokaren izpiritua bezala eta ekinbide bezala. Hori ez da hizkuntzaren defentsa hutsean edo fase negatiboan bakarrik gelditzen; hiru momentu behintzat ba ditu hizkuntzaren aldeko herri-jarkierak: Eutsi! Ireki! Eraiki!

Euskararen berreskurapenerako herri-jarkierak baldintza bat du bereziki kontutan izatekoa: *zabala, irekia eta baterakorra* izatea, eta ez erakunde sozial, kultural edo politiko bat, lotua. Areago, ez du abertzaleena edo euskaradunena bakarrik izan behar. Indar herritar gehien-gehiengatara zabalzera eta hedatzera jo behar du, abiaburu eta helburu jakin batzuren gain. Jarkiera herritarrarena ez da, hasteko, konfrontazioa lortzea, «frenteren» bat egitea, eta bai ahal den eta herritar gehinak erakartzea eta helburu jakin batera biltzea.

Bide bat du herri-jarkierak bere helburuetara iristeko: Organizazioa eta koordinazioa. Euskararen berreskurapenerako herri-mugimendua berriro suspertzen eta indartzen ari den honetan, oso interesgarria da nola ari diren herrietan talde, elkarte edo erakunde baterakor berriak sortzen: Arrasaten, Lasarten, Hernanin, Santutxun, Laudion.... Sail ezberdinetako jendeek osoturiko erakundeak dira. Bestalde, kultur sailerako lagunak arteko koordinazioa ere bideratzen ari da berriro: Unibertsitatean, irakaskuntzan, komunikabideetan, etab. Mugimendu zabal horren koordinazio-zerbitzu gisa sortu zen EKB (Euskarazko Kulturaren Barzarrea), euskararen eta euskal kulturaren defentsarako, normalakuntzarako eta berreskurapenerako jarkiera-plataforma.

Dohain nagusi bat behar du erresistentziatzeko mugimenduak: *irudimena*. Ezarritako botereen traba legal eta formaltasun instituzionalen gainetik edo albotik, ekintzarako eta borrokarako bide berriak asmatzeko eta etsaiak ustekabean harrapatzeko. Horixe da erresistentzearen armarik nagusia.

Euskararen berreskurapenaren aldeko bakezko jarkiera herritarrak hiru ekinbide nagusi ditu:

— *Jabera-pena*. Euskararen egoerari, dinamikari, balioari eta etorkizunari buruz gerò eta herritar gehiago jaberaztea: Euskararen berreskurapenerako jaberazpen —edo kontzientziazte— kanpaina etengabeak beharrezkoak dira.

— *Militantzia*: Lana egiteko, euskara ikasten, irakasten, lantzen erabiltzen... Euskararen berreskurapena ezin daitete profesionalismoaren eskuetan utzi, edota burokraziaren nahiz pasotismoaren bidetik lortu. Motibazio sozialak eta profesionalak landu behar dira; baina Euskal Herria euskalduntzeko militantzia behar-beharrezkoa da.

— *Mobilizazioa*: Gure hizkuntza nazionalaren errebindikazio edo eskakizuna aurrean ipintzeko eta haragorri kontrako politika eta jokabideak salatuzko, jarkierazko organizazioak ekinbide eta indar nagusienetakoa du horixe.